

Denboraren makina
Karlomagnoaren
gortean sortu zen
letra xehea

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Thesi
Estibalizko
Ama, arabar
guztien zaindaria

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Nork jarriko du azken banderilla?

Illunbeko zezen plazak zortzi torero hartuko ditu datorren larunbatean: Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Jon Martin, Iker Zubeldia, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Sarriegi. Kartelera koloretsua bezain erakargarria da: zortziek dute beren bertsokera, eta elkarrengandik oso desberdinak dira gainera. Txapelketan leialtasun handia erakutsi duen entzuleak berotuko ditu harmailak. Piribi, piribi-piribi-piribi, piri-piri-piri.... Ea nork poltsikoratzen dituen belarri gehien.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa





Izar berriak eta rockero zaharrak


AHO BIKO LABANA DA TXAPELKETA, eta urte batean aparretara igotzen duenari hurrengoan lepoa moztzen dio. Aipagarria da, adibidez, aurreko Gipuzkoako Txapelketan finalean aritutako zortzitik —Amaia Agirre, Iñaki Gurru-txaga, Ekaitz Goikoetxea, Jon Martin, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Jon Maia— lau ikusiko ditugula aurten Illun-beko oholtza gainean. Lau horietatik hiru plaza plaza dabilzanak dira, eta beraz, esan liteke Gipuzkoan bertsolari asko egoteaz gain, maila paretsukoak direla asko. Finalean sartze-ko lehia estua da. Horrela, Euskal Herriko txapelketan puri purian ikusi genituen Jokin

Uranga eta Ekaitz Goikoetxea ez dira finalera-ko lehian sartu ere egin.

Belaunaldi berriko sorpresa edo errebelazio nagusiak Uxue Alberdi elgoibartarra eta Beñat Gaztelumendi añorgarra izan dira, biek ere lehen txapelketa biribila egin baitute, entzule asko irabaziz. Gaztelumendik, gainera, final handian sartzea lortu du. Agin Rezolak ere aho zapore gozoa utzi die entzuleei.

Eta aurtengo txapelketan berezia izan dena, rockero zaharrek egin duten lana izan da: Ainhoa Agirreazaldeg, Xabier Sukia, Unai Agirre, Aitor Sarriegi, Iñaki Zelaia, Joxe Munduate... Hauek hamaika txapelketatan hartu dute parte, orain

Jon Martin



“Askotan txapelketako ondo egin behar horrek agarrotatu egiten gaitu, ez gara nahi bezain aske. Duela lau urte orain baino errazago egi-ten nuen bertsotan,

baina orain baino gutxiago neukan esate-ko. Orain badakit nola egin nahi dudana bertsotan, badakit zein den gustatzen zai-
dan umorea. Entzuleak nire bertsokak ikus-
tea nahi nuke”.

Unai Agirre



“Txapelketa guztiak antzerakoak izaten dire-
la pentsatzen dut. Txapelketaro entzuten dugu bertsokera berri bat, generazio berriak, publi-
ko ezberdina... izaten direla. Litekeena da, baina oinarrian ber-
tsuak dira nik ezagutu ditudan txapelketak eta beren aurrean orokorrean entzule edo bertsolariok dugun jarrera”.

Jexux Mari Irazu



"Txapelketan gaudelako entzulearentzat den-dena ez da 'libre'. Kantari ari garenean, bertsolariok askotan egoerari kantatzen diogu, baina ahaztu egiten dugu egoera horretan pertsonak daudela, gure inguruko pertsonak eta belarriak dituztela, eta gure metaforen kontraste nahia mingarri izaterainokoa dela. Irudimena, bere hutsean, ez da dohain bat".

arte finalera iristea lortu gabe, eta aurten aipatutako gehienek euren bizitzako txapelketa egiteaz gain, bik finalera sartzea lortu dute. Horrek erakusten du, maiz kirolarekin parekatzen bada ere, bertsotan beti dagoela gora egitea, ez dela gaztetan "olatua galtzen". Beteraniak maila ematen du, eta urtez urte soziedadeko koadrila giroan biltzen jarraitzeak fruituak eman dizkie aurten.

Aurreko txapelketako finalean bi emakume aritu baziren, aurten bat ere ez da arituko

Iker Zubeldia




"Harritu nau sekula bertsoak entzuten ikusi ez dudana jende mordoa ikusi dudala aurten Txapelketa jarraitzen, eta gainera gehien dakitenak orain eurak dira, hala hitz egiten dute behintzat".

—Maialen Lujanbiok ez du parte hartu—, eta horrek bertsolaritzan sexuen arteko berdintasunaz eta egin beharreko lanaz zer pentsatua ematen du.

Txapelerako buru asko

Jexux Mari Irazu, Jon Maia eta Aitor Mendiluze dira kiniela gehienetako kuttunak, plazaz plaza ibiltzeak ematen duen ofizioa, saioari eusten jakitea, eurena baita. Baina ez dugu

Jon Maia



"Txapelketa honetako protagonista orain arte bertsozalea izan da, bertsolaria baino gehiago. Kopuruak eta zer fidelotasun dagoen ikustea, hori izan da aipagarriena. Sorpresa txar gehiago egon dira bertsolarietan, onak baino: gehiago izan da huts egin duen jendea, espero baino gehiago egin duena baino. Baina hori normala da, txapelketa gehienetan gertatzen da".

Aitor Mendiluze



"Nire bertsoke-rak, eman deza-kedanak eta emateko moduak kezkatzen nau horren trukean lor dezakedanaren gainetik. Txapelketa osoa hartu dut bertso plaza izugarri tentagarri bat bezala, eta plaza horri erantzuten saiatuko gara".

Txapela
buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com



Beñat Gaztelumendi



"Mimo dezente jaso dudala iruditzen zait, gaztea izanda lagundu egin nahi zidatela, eta hori asko estimatzen dut. Antolakuntza ere sekulakoa da, dena dago kontrolatuta: saioa hasi aurretik zozketa egiteko beste gela batera sartzea, sintonia, oholtzaren dotorezia, kartzelan antolakuntzako norbait uneoro gurekin egotea...".

ahaztua Jon Martinek aurreko Gipuzkoako Txapelketan hauek atzean utzi zituela, Maialen Lujanbiorekin buruz-burukoa jokatzeko. Unai Agirre eta Aitor Sarriegi ere eskarmen-tu handikoak dira, lehenengo aldiz finalera pasatu arren, makina bat txapelketa jokatu-takoak. Iker Zubeldiak beti eusten dio mailari, eta parean tokatzen zaionean, ez du barkatzen. Eta Beñat Gaztelumendik bultzaka datorren belaunaldi berriaren indarra eta ausardia ditu.

Beraz, saio bakarrera jokatuta edozer gerta daitekeenez, baliteke finalean hiruko urreak bere distira erakustea, edo hauek apalxeago arituz gero, besteren batek goia jo eta txapel beltza lortzea.

"Machaquito" eta "Bombita"-k

"Machaquito ta Bombita ditut, etorritzeko esanak", zioen Txirritak, bere ezkontzan fiesta izugarriak izango zirela iragarritz. Bi torero handi horien ordezt, beste zortzi arituko dira Illunben, hauek batzuk matxakitoak, errima eta molde oso landukoak, eta beste batzuk bonbitak, ezusteko ideia eta bertsoak leherra-razten artistak. Final polita espero da, bakoitzak berea jartzen badu.

Aitor Sarriegi



"Lehen bi faseetako saioen maila ere altua izan dela uste dut. Agian finalerdiak izan dira sorpresa negatiboa, edo gehienok espero genuena eman ez dutenak. Bestalde, jendeak ahaztuxek zituen izen batzuk finalerdietan ikusteak poz handia eman dit".

Arrakasta ziburra

Badirudi, azken urteetan bertsolaritzak eraikin handiak hartu dituela bere ikur. Bertso egunak Kursala, Bizkaiko Txapelketak Euskalduna, Euskal Herriko Txapelketak BEC... Gipuzkoako Txapelketak Illunbe hartu du finalerako eszenatoki. Joera honen arriskua "zenbat eta gehiago hobe" arauan erortzea da, eta beraz, hurrengo txapelketan gutxienez entzulea berdindu edo areagotu beharra dago, eta areto txikiagora pasatzea "atzerapauso" edo "frakaso" gisa hartzen da.

Auskalo Illunbera zenbat entzule joango den. Baina finala baino bi aste lehenago 3.000 sarrera salduta zeuden, eta finalerdietako saio bakoitzean 1.000 entzule inguru bildu dira. Kopuru izugarria da, euskara hutsean egindako ekitaldi gutxiak bilduko ditu txapelketa honetako finalak adina entzule. Era berean, zeren plazan kantatzea ia bertsolari denentzat da inbidiagarri, horrelako plaza berezian aritzeko aukerak ez baitira bizitzan asko izaten. ■

<http://www.argia.com/blokak/garialea>

helbidean, gai honi buruzko bideoa eta finalista guztiei egindako elkarrizketen bertsio luzea.

ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak

8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziboga
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com